

Azalpen txostena, Bide Azpiegituretako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.

Bide azpiegituren arloan eskumen osoa dauka Gipuzkoako Lurralde Historikoak; horrenbestez, Bide Azpiegituretako Departamentuaren funtzioak eta eskumenak funtsean bi lege nagusi hauetatik datoz: Euskal Herriko Autonomia Estatutua (10.34 artikulua) eta 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego osorako erakundearen eta bere Lurralde Historikoetako foru erakundearen arteko harremanei buruzkoa (7. artikuluko a) 8. atala); alde batera utzi gabe arlo horretan erregimen komuneko aldundiei dagozkienak.

2016ko uztailaren 19ko 20/2016 Foru Dekretuak, Bide Azpiegituretako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, departamentuari jardura esparru eta funtzio hauek dagozkio:

1. Errepide sarea planifikatzea.
2. Lurraldeko errepide sarea eraiki, artatu eta ustiatzea.
3. Bizikleta bideen azpiegituren arloan: a) Errepideak eraikitzeko proiektuetan sartutako bizikleta bideak eraikitzea. b) Lurraldeko bizikleta bideen sarea artatzea eta ustiatzea. c) Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari laguntza ematea, eta gainbegiratze tekniko egitea, bideen herri jabarian sartu gabe dauden bizikleta bideen eraikuntza proiektuen espedienteak tramitatzeko eta onartzeko, eta baita ere proiektu horien obrak kontratatatzeko eta gauzatzeko.

Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Infraestructuras Viarias respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.

En materia de infraestructuras viarias, la competencia que ostenta el Territorio Histórico de Gipuzkoa es exclusiva; las funciones y competencias del Departamento de Infraestructuras Viarias son fundamentalmente las que derivan del artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y del apartado a) 8 del artículo 7 de la Ley 27/1983, 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, todo ello sin perjuicio de las que en esta materia corresponden a las diputaciones de régimen común.

De acuerdo con el Decreto Foral 20/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Infraestructuras Viarias, al departamento le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

1. Planificación de la Red de Carreteras.
2. Construcción, conservación y explotación de la red viaria del Territorio.
3. En materia de infraestructuras de vías ciclistas: a) Construcción de vías ciclistas integradas en los proyectos de construcción de carreteras. b) Conservación y explotación de la red de vías ciclistas del Territorio. c) Prestar apoyo técnico al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio y ejercer la supervisión técnica, tanto de los expedientes de tramitación y aprobación de los proyectos de construcción de vías ciclistas no integradas en el dominio público viario, como de la contratación y ejecución de las obras de estos proyectos.

2017. ekitaldiko aurrekontua prestatzerakoan, 2016ko aurrekontuan hartutako irizpideak jarraitu dira, hau da, Gipuzkoa biribilgunea osatzeko beharreko baliabideak erabiltzea; horretarako, GI-632 errepidearen saihebidetza amaitzeko Antzuola-Bergara zatiko lanak egingo dira. Gainera, Foru Aldundiaren errepide sarea modu eraginkorrean zaindu, artatu eta ustiatzeari ekingo zaio. Hala ere, ez dira alde batera utziko hobekuntza proiektu batzuk eta garrantzi txikiagoko beste lan batzuk.

Datorren urtean GI-632 errepidearen saihebidetza amaitzeko Antzuola-Bergara zatiko obretarako 21.729.353 euro erabiliko dira, 2016. urtekoa baino askoz gehiago, soilik lanei ekiteko beharrezko kredituen aurrekontua prestatu baitzen.

Errepide sarearen ohiko artapen gastuetarako kreditua % 0,68 handitzen da, zerbitzuaren kalitatea eta errepideetako segurtasuna hobetzeko. Programa honetan, aipagarriak dira tuneletako ekipamendua Europar direktibara egokitzeko jarduketak, energia eraginkortasuna lortzekoak, errepideetan garraio sistema adimendunak jartzekoak eta bide segurtasunekoak.

Bestalde, prebentziozko artapen lanetarako kredituak % 28,19 handitzen dira, batetik, presako lan handiak egin behar ez izateko (aipagarrienak dira GI-632 errepidearen ezponda egonkortzekoak eta GI-3361 errepidearen egonkortzekoak), eta, bestetik, zorua birgaitzeko eta Gipuzkoako bide sareko egiturak hobetzeko lanak.

En la elaboración del presupuesto para el ejercicio 2017 se han seguido los criterios adoptados ya en el presupuesto 2016, en el sentido de destinar los recursos necesarios para completar la rotonda de Gipuzkoa, abordando las obras de terminación la variante de la GI-632 Tramo Antzuola-Bergara, y para mantener, conservar y explotar de una manera eficiente la red de carreteras de la Diputación Foral, sin perjuicio de abordar determinados proyectos de mejora, como actuaciones de menor entidad.

Los créditos destinados a las obras de terminación la variante de la GI-632 Tramo: Antzuola-Bergara, en el año 2017 ascienden a 21.729.353,00 €, lo que supone un incremento ostensible respecto del año 2016, dado que los créditos presupuestados se limitaban a los estrictamente necesarios para el inicio de las obras.

Los créditos destinados a gastos de conservación ordinaria de la red de carreteras se incrementan en 0,68 % a fin de mejorar la calidad del servicio y la seguridad de las carreteras. Son relevantes, a efectos de este programa, las actuaciones para la adaptación del equipamiento en túneles a las exigencias de la directiva europea, las actuaciones tendentes a lograr una eficiencia energética, las actuaciones para la instalación de sistema inteligentes de transporte en las carreteras y las actuaciones de seguridad vial.

Por otro lado, los créditos correspondientes a la conservación preventiva se incrementan, en un 28,19 %, a fin de abordar, por una parte, actuaciones que eviten tener que acometer obras de gran envergadura de carácter urgente, siendo las más relevantes la estabilización de un talud en la GI-632, y la estabilización de la carretera GI-3361, y por otra, la realización de labores de rehabilitación de firme y mejora de estructuras de la red viaria guipuzcoana.



Azkenik, errepideak egin eta hobetzeari dagokionez, GI-632 errepidea alde batera utzita, lan horietarako kredituak murriztu egiten dira. Zehazki, aurreikusitako jarduketa nagusienak dira GI-638 errepidea hobetzeko eta oinezkoen pasealekua sortzeko (Deba-Mutriku) proiektua idazten amaitzea, GI-631 errepidea Azkoitia eta Urretxu artean zenbait zatitan hobetzeko proiektuak idaztea eta hainbat hobekuntza obra egitea.

Finalmente, en lo que concierne a construcción y mejora de carreteras distintas a la GI-632, los créditos destinados para tal fin se reducen, siendo las principales actuaciones previstas en el mismo: la conclusión de la redacción del proyecto de mejora de la carretera GI-638 y creación del paseo peatonal (Deba-Mutriku), la redacción de proyectos de mejora de la carretera GI-631 entre Azkoitia y Urretxu, en distintos tramos, así como la ejecución de diversas obras de mejora.